

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**85/2024 Mozioa, urriaren 16koa, Arabako Miñoien Ingurumeneko Laguntza Taldea (ILT) berreskuratzeko eta Ertzaintzaren Ingurumen eta Hirigintza Atala indartzea eta profesionalizatzea eskatzeko**

Arabako Batzar Nagusiek, 2024ko urriaren 16an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

85/2024 Mozioa, urriaren 16koa, Arabako Miñoien Ingurumeneko Laguntza Taldea (ILT) berreskuratzeko eta Ertzaintzaren Ingurumen eta Hirigintza Atala indartzea eta profesionalizatzea eskatzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote osorik bete dezala martxoaren 7ko 27/2024 Mozioa, Arabako Lurralde Historikoan ehizako zehapen-espeditenteen izapidetzea hobetzeko dena. Mozio horren bosgarren puntuan honako hau adierazten da: "Arabako Batzar Nagusiek Miñoien patruila berdea (Ingurumeneko Laguntza Taldea - ILT) berreskuratzeko eta indartzeko eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari, delitu ekologikoen eta ingurumen-delituen prebentzioa eta jazarpena indartzeko".

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote erreklamatu diezaiola Eusko Jaurlaritzari Ertzaintzaren Ingurumen eta Hirigintza Atala indartzeko eta behar bezala profesionalizatzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sustatu dezala gaur egun Landa Inguruneko Patruila (PER) deritzona, miñoi-kopuru egokia finkatuz, patruila horretan miñoien jarraipena erraztuz, garatu beharreko eskumenen arabarako prestakuntza espezifikoia emanez, gure lurraldea (hiri-ingurunea, landa-ingurunea eta baso-ingurunea) behar bezala eza-gutzea erraztuz, eta dauzkaten eskumenak ahalik eta ondoen garatzeko behar dituzten baliabideak emanez.

4. Akordio honen berri emango zaie Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrilla eta udal guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 16a

*Lehendakaria*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**